

Oraingoan... Elkarbizitza positiborako gatazken kudeaketa

BAKERAKO ELKARRIZKETA



TALDEAK

Irakasleentzako gida

**Gatazkak ebazteko eta hezkuntza komunitateetan
elkarbizitza hobetzeko proposamenekin**









AURKIBIDEA

1. GAIARIHELTZEKO

(METODOLOGIA, HELBURUAK ETA DATAK).....3,4,5

2. GELAN LANTZEKO IDEIAK

	Haur Hezkuntza (0 eta 3 urte bitartean).....	6,7
	Haur Hezkuntza (3 eta 6 urte bitartean).....	8,9
	Lehen Hezkuntza (6 eta 9 urte bitartean).....	11,12,13
	Lehen Hezkuntza (9 eta 12 urte bitartean).....	14,15,16
	Bigarren Hezkuntza (12 eta 14 urte bitartea)...	18,19,20,21
	Bigarren Hezkuntza (14 eta 16 urte bitartea).....	22,23

3. FAMILIAN LANTZEKO PROPOSAMENAK24

- Haur Hezkuntza (0 eta 6 urte bitartean).....25
- Lehen Hezkuntza (6 eta 12 urte bitartean).....26
- Bigarren Hezkuntza (12 eta 16 urte bitartean).....27,28

4. SAKONTZEKO BALIABIDEAK.....29,30

Zure iritzia axola zaigu. Anima zaitetz materiala baliozkotzera honako helbidean

programaeducativo.ayudaenaccion.org

1.

GAIARI HELTZEKO

Bake eta elkarbizitza kultura: gatazkak entzute aktibo batetik kudeatzen dituen mundu orokor baterantz.

Ayuda en Acción elkartearen uste dugu garrantzitsua dela kulturen arteko elkarbizitza gizarte guztietan sustatzea, dibertsitatea errespetatzeko eta garrantzitsutzat jotzeko, gelako neska-mutil eta gazteentzat oso aberasgarria delako. Elkarbizitza positiboa sustatu nahi dugu hezkuntza komunitateetan, gatazken kudeaketa baketsua landuz, entzute aktiboa, enpatia eta dibertsitatearen errespetuaren bidez.

Bizi garen mundu honetan, liskarrak pertsonen arteko eguneroko jarrera arruntzat jotzen da, eta ondorioz, baztertzeko ditugu gatazken kudeaketa positiboaren hainbat adibide. Horri dagokionez, elkarrizketa nahi dugun mundua eraikitzeko tresna bilakatzeko gai bagara, eta ez gure ideiak besteari inposatzeko tresna, bake eta elkarbizitzako kultura batera gerturatuko gara, eta gatazkak hobetoagoa den zerbait eraikitzeko modu bat bezala ulertuko ditugu.

Metodologia

Oraingoan...Bakerako elkarrizketa taldeak jardura desberdinak biltzen dituen hezkuntza proposamen bat da, gatazken kudeaketa positiboan oinarrituta, hezkuntza komunitateen esparruan, bake kultura bat eta bidezkoagoa den gizarte bat eraikitzearen alde egiteko.

Jardura kolektibo berbera da eskola osorako, eta neska-mutilak eta gazteak pasiboagoa den rol horretatik ateratzea du helburu, elkarbizitzako arazoak sortzen direnean, eta baita ikaskuntzarako aukerak sortzea ere, gatazkak kudeatzeko bestelako erak jorratzen direnean.

Parte hartzeko tailer desberdinak garatuko dira, eskuragarriak diren materialak abiapuntu hartuta, esaterako; ipuinak, dokumentalak, egunkarietako berriak, musika, laburmetriak edo eskolako berezko materialak.

Adin talde bakoitzari egokitutako ariketa desberdinak aurkituko dituzue, eskolan eta etxean garatzeko. Jarduerak dinamikoak eta garatzeko oso errazak dira.

Horiek burutzeko, gomendatzen da ordenagailua eta interneterako konexioa edukitzea. Hala ez bada, familiei bizi diren zonaldean interneterako konexioa duten gune publikoak ezagutzera gonbidatzen zaie, besteak beste; eskola bera, liburutegiak, kultur etxeak, eta abar.

Helburuak

- Gatazken kudeaketa positiboa sustatzea.
- Neska-mutil eta gazteak haztea eta balioak barneratzea sustatzea, euren emozio propioen kudeaketaren bidez.
- Hezkuntza komunitateek parte hartzearen eta kolaboratzearen alde egitea, irakasleak, ikasleak eta familiak inplikatur.

Datak

Gure iradokizuna proposamen hau urtarrilaren 30ean inguru landu ahal izatea da, Bakearen eta Indarkeriaren Gabeko Eskola Eguna ospatuko baita, baina bestelako datak ere erabil daitezke, esaterako: maiatzak 21, Elkarrizketa eta Garapenerako Kultur Dibertsitatearen Munduko eguna, edo eskolan ondo datorkizuen beste bat.



Idatzi educacion@ayudaenaccion.org helbidera. Zure proposamena blogean argitaratuko eta partekatuko dugu Oraingoan... proposamenean parte hartzen duten gainontzeko eskolekin



<https://programaeducativo.ayudaenaccion.org/>

Oraingoan... Elkarbizitza positibo baterako gatazken kudeaketa

BAKERAKO ELKARRIZKETA TALDEAK



**Irakasleentzako gida
(Haur Hezkuntza)**

**Gatazkek ebazteko eta hezkuntza komunitateetan
elkarbizitza lortzeko proposamenekin**

 **Ayuda en
Acción**
Ekintzaz Lagundu

2.

GELAN LANTZEKO IDEIAK

Haur Hezkuntza (0 eta 3 urte bitartean)

Deskripzioa

Oso jarduera errazak jolasa talde handian eta emozioen eta sentimenduen adierazpena sustatzeko.

Helburuak

Taldearekin harreman positiboak ezartzea; lengoaiaren eta gorputz adierazpenaren bidez komunikatzen ikastea.

Jarduerak

★ Jarduera: Kaixo!

Materialak: musika-erreproduzitailea, paketatzeko papera, koloretako pinturak (arkatzak, errotulagailuak, argizariak, eta abar.).



Denbora: 40 minutu.

Neska-mutilak askatasunez mugituko dira gelan zehar, musika entzuten eta dantza egiten duten bitartean. Musika eten egiten denean, neska-mutil bakoitzak gelakide baten eskuari helduko diote eta haren izena ahotz goran esango dute. Ariketa errepikatuko da denek elkarri agurtu arte.



Amaitzerakoan, galdetu diezaiekezu:

- Jolasa gustatu zaizue?
- Denok elkarri agurtu diozue?
- Nola sentitu zarete?

Ariketa amaitzeko, proposatu euren eskutxoak marraztea eta izenak mural batean idaztea. Muralean, mapamundia jar daiteke. Ariketa jorratu baino lehen, gogoratu maparen ingurua marraztu behar duzula. Amaitu ondoren, gelako txokoren batean zintzilikatu dezakezue.

Jarduera: Besarkadak oparitzuz

Materialak: ez dira nahitaezkoak, baina, musika-erreproduzitzaile batekin egin daiteke.

Denbora: 20 minutu.



Txikiei eskatu gelatik askatasun osoz ibiltzea (poliki) eta gelakide batekin topo egiten dutenean, zera esatea: besarkada bat oparituko didazu? Zenbait umek ez du besarkadarik jaso nahi izango eta beste batzuek berriz, etengabe jaso nahiko dituzte. Beste batzuek jolasa ekidingo dute, bestek besarkada handiegiak emango dituzte... Hezitzaile gisa, ariketa kudeatu beharko duzu, gara dadin eta neska-mutil guztiek euren emozioak nahi duten bezala adieraz ditzaten.

Bukaeran, honako galderak egin ahal dizkiezu:

- Besarkada jasotzea gustatu zaizue?
- Zein izan da gehien gustatu zaizuen besarkada?
- Besteengandik besarkadak jasotzen eta ematen dituzue?



Deskripzioa

Jarduera hauen helburua hurrek oso ohikoak ez diren materialekin lan egitea eta askatasunetik esperimendatzea da, mugak eta funtzionamendu arauak argi utzita. Formula honek txikiei autonomia gehiagorekin lan egiteko, euren emozioak erregulatzeko eta besteekin elkarrekin bizitzen ikasteko gaitasuna ematen die, errespetua eta gatazken kudeaketa positiboa sustatuz.

Elburuak

Egunerokotasunean sormena, erabakiak hartzerakoan aktiboki parte hartzea eta talde erantzukizuna sustatzea, eta baita gelakideekiko, guneekiko eta materialekiko errespetua sustatzea ere.

Jarduerak

★ Jarduera: Emozioetarako musika

Materialak: musika-erreproduzitzailea, musika-tresnak (marakak, danborrak, panderetak, eta abar) edo musika soinuak sortu ditzaketen materialak, esaterako, kutxak, edalontziak, kartoiak, eta abar.



Denbora: 40 minutu.

Ariketa honetan emozioak eta lan kooperatiboa helburu nagusiak dira.

Hasteko, jarri gelan normalean erabiltzen duzuen musika, nahastu musika estilo desberdinekin eta jarraitu hurrengo jarraibideak:

- 1) Eskatu ikasleei borobil bat egitea eta gorputzak musikaren erritmora mugitzea. Esaiezu eramaten uztea, lotsa, beldurra, barregarri gelditzearen ikara baztertzea, askatasunez mugitzea.
- 2) Zera galdetu: nork nahi du erdian dantza egin? eta boluntario bat daukazu-nean, gonbidatu taldeko gainontzekoei bere mugimenduak jarraitzera.
- 3) Proposatu binaka, hirunaka, launaka, eta abar dantza egitea.



- 4) Gonbidatu eskolan duzuen zenbait tresna jotzera (marakak, danborrak, panderetak, etab.) eta denbora dinamizatu txandak errespetatzeko eta gelakide guztiok unerren batean jo ahal izateko.

Ariketa honekin emozioen lengoaia, denbora eta txanden errespetua, norberaganako eta galdeko kide guztienganako konfiantza landu ditzakezu.

Jarduera: Txokoterapia

Materialak: paketatzeko papera, pintzelak, esponjak, txokolate likidoa, edalontziak, musika-erreproduzitailea.



Denbora: 50 minutu.

Proposatu ikasleei borobil bat egitea eta esplikatu mural handi bat sortuko duzuela txokolatearekin. Jarduera honen sekretua murala hasi baino lehen erabaki guztiak adostu behar izatean datza.

Hona hemen jarraitu ditzakezun urratsak:

- Aukeratu musika bat gelan jartzeko.
- Aukeratu musika gai bat muralean marrazteko.
- Banatu ume bakoitzari murala egiteko egokituko zaion zeregina: nork marraztuko duen, nork antolatuko duen marrazkiaren garapena, nork prestatuko duen txokolatea, nork prestatuko duen materiala, nork jasoko duen, eta abar.

Murala amaitu ondoren, eskatu taldeari zirkuluan berriz esertzea eta egin honako galderak:


- Taldean lan egitea gustatu zaizue?
- Materiala denon artean partekatu duzue?
- Gatazkaren bat izan al zen? Nola kudeatu zenuten?

 #círculosdialogo

Idatzi educacion@ayudaenaccion.org helbidera eta esaiguzu nola garatu zen jarduera zuen eskolan. Zure esperientzia Ayuda en Acción elkarteko gainontzeko hezkuntza-komunitatearekin partekatuko dugu programaeducativo.ayudaenaccion.org gunean

Oraingoan... Elkarbizitza positibo baterako gatazken kudeaketa

BAKERAKO ELKARRIZKETA



TALDEAK

**Irakasleentzako gida
(Lehen Hezkuntza)**

**Gatazkak ebazteko eta hezkuntza komunitateetan
elkarbizitza lortzeko proposamenekin**

 **Ayuda en
Acción**
Ekintzaz Lagundu

2. GELAN LANTZEKO IDEIAK

Lehen Hezkuntza (6 eta 9 urte bitartean)

Deskripzioa

Jarduera hauen helburua txikienek euren sentimenduak naturaltasun handiagoz ulertzea eta aurreiritzirik gabeko adierazi ahal izatea sustatzea da. Haurrentzat bidaia introspektiboa egitea ona da, euren buruak entzuteko, ezagutzeko eta sentimenduak adierazteko, eta baita enpatia eta gainontzekoak balioztatzea sustatzeko ere.

Helburuak

Heziketa emozionala sustatzea, seguritatea, konfiantza, autoestimua eta onarpena areagotzeko.

Jarduerak

★ Jarduera: Emozioak askatuz



Materiala: hori, urdin, berde, gorri eta beltz koloreko hariak eta puxikak.

Denbora: 50 minutu.

Lehen zatia:

Lehen zati hau alaitasuna, tristura, amorrua, beldurra eta lasaitasunarekin lotutako emozioak adieraztean datza, aurpegiaren adierazpenaren bidez.



Borobil bat egin eta zutik geratu. Haur bati haria eman eta eskatu emozioetako bat adieraztea (aurpegiaren bidez), adibidez, alaitasuna. Hura irudikatu ondoren, haria beste gelakide bati eman eta ariketa errepikatu guztiok emozio bakoitza adieraz dezaten. Hasteko, alaitasunarekin egin dezakezue, bero tristura, amorrua, beldurra eta lasaitasunarekin (haria uneoro helduta). Ariketaren amaieran, armiarma-sare erraldoia edukiko duzue emozio guztiak korapilatuta.

Amaitu ondoren, hurrengo galderak erabil ditzakezu:

- Zuen ustez, zer esan nahi du "emozioekin korapilatzea"?
- Nola irudikatu litezke maitasuna edo esker ona?
- Emozio gehiago ezagutzen dituzue? Nola izango litzateke lotsa?

Bigarren zatia:

Ariketa bukatzeko, banatu puxikak (materialean aipatutako kolore desberdinekoak) lurretik eta eskatu haurrei bana hartzeko. Puxika bakoitzak emozio bat irudikatzen du: horia (alaitasuna), urdina (tristura), gorria (amorrua), beltza (beldurra), berdea (lasaitasuna).

Hiru arte zenbatu gora botatzeko eta beste berri bat hartzeko. Haur bakoitza, ahotz goran, adibide bat jarriko du emozio horiek gogora ekartzen dizkieten gertakariei edo pertsoneri buruz. Adibidez: *pozik nago gustuko dudan filma bat anai-arrebekin ikusten dudanean.*

★ Jarduera: Erretratua

Materialak: DINA4 orriak, arkatzak eta koloretako errotulagailuak, gomak.



Denbora: 60 minutu (30 minutuko bi saiotan banatuta).

Lehenengo saioa (30'):

Banatu haur bakoitzari paperezko orri bat, eskatu euren buruak marraztea eta atzealdean horiei buruzko hiru gauza on, egiten dakiten hiru gauza eta nola sentitzen diren idaztea, oinarrizko emozioei dagokien hitz bat erabiliz. Beharrezkoa izanez gero, nahi dutena idazten lagundu diezaiekezu eta ariketa egokitu dezakezu haurren adinaren arabera.

Lehen Hezkuntza (6 eta 9 urte bitartean)



Marrazkiak amaitu ondoren, jaso eta gorde hurrengo egunerako.



Bigarren saioa (30'):

Borobil batean eserita, erakutsi marrazki bakoitza, gelakidearen ezaugarriak aipatuz, gainontzekoek nor den asma dezaten. Jarduera amaitu baino lehen, taldeari proposatu diezaiokezu gelakideen gaitasun eta ezaugarri positiboak kontuan hartzea (erretratuaren deskripzioan agertu ez direnak), besteekiko onespina ere sustatzeko.

 #círculosdedialogo

Idatzi educacion@ayudaenaccion.org helbidera eta esaiguzu nola garatu zen jarduera zuen eskolan. Zure esperientzia Ayuda en Acción elkarteko gainontzeko hezkuntza-komunitatearekin partekatuko dugu programaeducativo.ayudaenaccion.org gunean



Deskargatu etapa honen hezkuntza materialak blogean

<https://programaeducativo.ayudaenaccion.org/>





Deskripzioa

Jarduera hauen helburua gelan eta eskolan inguru sozial orekatua, baketsua eta kohesionatua garatzearen alde egitea da.

Helburuak

Entzute aktiboa, dibertsitate funtzionalarekiko errespetua eta bitartekotza gatazkak kudeatzeko prozesu gisa sustatzea.

Jarduerak

★ **Jarduera: Nork entzuten dit?**

Materiala: ez da behar.



Denbora: 50 minutu.

- 1^o) Bilatu hiru boluntario ikasleen artean, atera beraiekin pasillora eta esaietu, bakoitzak bere aldetik, bizitzan gertatutako jazoera garrantzitsuren batean pentsatu behar dutela, ondoren gelakideen aurrean esplikatzeko. Ez dira denak batera sartu behar, baizik eta banaka.
- 2^o) Utzi hiru gelakideak pentsatzen eta sartu berriro gelan taldeari esplikatzeko hiru boluntarioei planteatu diezun ariketan zertan datzan. Eskatu, pixkanaka, istorioa azaltzen ari den gelakideari arretaz entzuteari uztea eta euren hizketaldia eten egitea. Adibidez, horien artean hitz egin dezakete, aharrausi egin, lo hartu, beste aldera begiratu, eta abar, gero eta modu nabarmenagoan.
- 3^o) Eskatu boluntarioei banaka sartzen joatea.

Kontuan hartu, zeuk, irakasle gisa, jardueran parte hartu behar duzula ere. Ikusten duzunean haurrak ez direla entzuten ari, saiatu noizean behin arreta deitzea, gelakideari entzuteko, baina mantendu nahiko jarrera pasiboa.



Ziurrenik, haur boluntarioek euren istorioa azaltzeko traba handiak dituztela eta taldeak ez diela arreta nahikoa jartzen sentituko dute. Egokitzat jotzen duzunean, eten ariketa eta haurrari automatikoki galdetu ea nola sentitu den bere istorioa azaldu duenean. Hurrengo galderak egin ditzakezu:

- **Nola sentitzen zara une honetan?**
- **Hitz egiten ari zinen bitartean, zer gertatu da gelan?**
- **Zerk egin dizu traba?**
- **Ze iruditu zaizu nire irakasle gisako jarrera?**

4^o) Errepikatu ariketa beste bi gelakideekin.

5^o) Hiru boluntarioei euren istorioak azaltzeko aukera berri bat emango diegu, baina oraingo honetan, gelakideak adi entzuten.

Azkenik, gogoeta bat egin dezakezu gelaren barruan ematen diren egoerak positiboki kudeatzen jakitearen garrantziari buruz, elkarbizitza ona eta bake kultura sustatzeko. Boluntarioen taldeari gonbidatu, gelakideek arretaz entzuten ez zietenean nola sentitu diren azaltzera, entzun dietenean sentitu dutenarekin konparatuz, eta eskatu gelako taldeari gogoeta egitea, jarduera garatu den bitartean sentitu dutenari buruz.

Rol banaketa:

- 1) Boluntarioak: pribatua beraientzat garrantzitsua den istorio batean pentsatuko dute eta ondoren gelako taldeari azalduko diote.
- 2) Gelako taldea: boluntarioen taldeari boikot egingo diote euren istorioa azaldu ahal ez izateko.
- 3) Irakaslea: boluntarioei eta taldeari esplikatuko die zeintzuk diren euren zereginak eta jarduera hasieratik bukaerara arte dinamizatuko du berak ere ariketan parte hartuko duela.

Jarduera: Lorentzoren burruntzalia

Materialak:

- Isabelle Carrier-en ipuina:

<http://www.andalicante.org/enlaces/cuentos-discapacidad/el-cazo-de-lorenzo.pdf>

- Ipuinaren bideoa: <https://www.youtube.com/watch?v=upDli7rcGol> (iraupena 4 min eta 40").

- Proiektorea interneterako konexioarekin.



Denbora: 50 minutu.

Irakurri ahotz goran Lorentzoren burruntzia ipuina edukiari eta argumentuari buruzko informaziorik eman gabe. Bukatu ondoren, galdera desberdinak egin ditzakezu eta ikasleekin sortarazi dizkion sentsazio desberdinak landu ditzakezu:

- **Ezagutzen al duzu burruntzi bat daraman haurrik?**
- **Zein zailtasunari egin behar dio aurre Lorentzok?**
- **Zuen ustez, nola sentitzen da Lorentzo?**

Gogoetak partekatu ondoren, ipuina berriz azaldu dezakezu, baina oraingo honetan bideoa proiektatuz eta taldeari eskatuz Lorentzorengan ikusten dituzten gaitasun guztiak eta gainditu behar dituen traba guztiak paper batean idaztea. Gero, berriz guztien artean komentatu dezakezu berri, ikasleak dibertsitate funtzionalaz eta batzen gaituen aberastasunez ohartarazteko.

 #círculosdedialogo



Idatzi educacion@ayudaenaccion.org helbidera eta esaiguzu nola garatu zen jarduera zuen eskolan. Zure esperientzia Ayuda en Acción elkarteko gainontzeko hezkuntza-komunitatearekin partekatuko dugu programaeducativo.ayudaenaccion.org gunean

Deskargatu etapa honen hezkuntza materialak blogean



<https://programaeducativo.ayudaenaccion.org/>

Oraingoan... Elkarbizitza positibo baterako gatazken kudeaketa

BAKERAKO ELKARRIZKETA



TALDEAK

Irakasleentzako gida
(Bigarren Hezkuntza)

Gatazkek ebazteko eta hezkuntza komunitateetan
elkarbizitza lortzeko proposamenekin

 **Ayuda en
Acción**
Ekintzaz Lagundu

2. GELAN LANTZEKO IDEIAK

Bigarren Hezkuntza (12 eta 14 urte bitartean)

Deskripzioa

Jarduera hauen helburua gatazkak bizitzaren alderdi naturala eta ikasketa iturria direla azaltzea da. Gogoeta, sortze eta kritika pentsamendu gaitasunak garatzean datza. Gizarte testuinguruak eraldatzen eta inguruan elkarbizitza egokia sortzen laguntzen du.

Helburuak

Adiskidetasuna, beldurra gainditzea, elkarriketarako eta sentimendu adierazpenarako gaitasuna, eta taldeko komunikazio hobekuntza sustatzea.

Jarduerak

★ Jarduera: Hitz egiten duten irudiak

Materialak: Gatazkak kudeatzeari buruzko interneteko irudiak (positiboa eta negatiboa), proiektorea (inprimatu ordez proiektatzen badira).



Denbora: 50 minutu.

Gatazken kudeaketa ona eta okerrarekin zerikusia duten irudi desberdinak inprimatu edo proiektatu ditzakezu. Ikasleak gelatik zehar zabaldu, talde txikietan, euren ikuspegiak partekatu eta baterako gogoeta bat egin ahal izateko. Lehendabizi, taldeei erakutsi gatazken kudeaketa okerra irudikatzen duten irudiak, ikusten dutenari buruzko gogoeta egin dezaten eta gelakideekin, irakasleekin, familiarekin... eskolan, auzoan, hirian, eta abar izan dituzten antzeko gatazketan pentsa dezaten. Planteatu iezaezu bizi dituzten gatazkek komentatzen dituztenean, hurrengo esaldiak kontuan hartzea:

- Zer gertatu da.
- Zein alderdi egon dira inplikaturak.
- Zein sentimendu sortu ditu.
- Nola konpondu da.

Elkarrizketa honi esker, guztion artean elkarbizitza hobetzeko jardueri buruzko gogoeta egin, ebatzi eta proposatu ahal izango dituzte. Horrez gain, gatazka bat kudeatzeko euren gaitasunak eta diskurtsoak sendotzeko irudi positiboak erakutsi.

Non aurki ditzakezu irudiak? Ondoren, interneterako bilaketa erraztuko dizugu, zenbait irudi azkar deskargatu ahal izateko. Idatzi bilatzailean, adibidez: “manage conflict effectively”, “external conflict pictures” edo “conflict clipart”.


Ariketa: Besteengan pentsatuz

Jarduera honetan, hautatzeko bi aukera proposatuko dira, denbora librearen arabera, beraz, hura saio batean edo bi saiotan garatu ahal izango da.

Materialak:

- “Pensando en los demás. Pedagogía para la vida” dokumentala: <https://www.youtube.com/watch?v=Ui53NgLHpWo> (iraupena: 49 min 37”)
- Saio baterako materiala: koloretako klerak.
- Bi saiorako materiala: orri bat haur bakoitzeko, boligrafoak.

Bigarren Hezkuntza (12 eta 14 urte bitartean)



Denbora:

- 50 minutu (saio 1).
- 90 minutu (2 saio).

Dokumentalaren deskripzioa:

“*Pensando en los demás*” dokumentalak irakasle eta lehen hezkuntzako laugarren mailako ikasleen arteko istorioak eta elkarbizitza biltzen ditu, ikasturte batean zehar, Japoniako herritxo bateko eskola batean. Dokumental honetan, hainbat kontzeptu erakusgai jartzen da, besteak beste; maitasuna, lotura, entzute aktiboa, lankidetzeta edo ikaskuntza; eta baita ere gatazken behaketa, eta ikasturtean sortutako gatazka desberdinei aurre egiteko irakaslearen ahozko eta gorputzeko eraginkortasuna.

Jarduera bi saiotan egin daiteke: egun batean bideoa ikusi eta bestean jarduera garatu; edo saio batean: bideoa ikusi hamahirugarren minutura arte eta bukatzean jarduera garatu.

Burutu beharreko saio proposamenak Kanamori irakasleak bideoan planteatzen dituen berberak dira:



A AUKERA: 50 minutuko saio bat.

Lehenik eta behin, dokumentalaren zati bat pasa 13. minutura arte. Bertan, Kanamori irakaslea ezagutuko dugu, bere hezkuntza proiektua eta hezkuntza emozionala ikasleen istorio pertsonalen bidez nola kudeatzen duen adierazten duen adibideren bat.

Bigarrenik, proposatu ikasleei hurrengo jarduerak:

- Dokumentalaren inguruko gogoeta: Zer iruditzen zaizue irakasleak erabiltzea
- Silueten marrazkia: nola sentitu diren adierazi ondoren, proposatu haur bakoitzak bere silueta lurrean marraztea gelakide baten laguntzarekin eta horren barruan, bere bizitzaren eta nortasunaren ezaugarriak idaztea.
- Amaierako balorazioa: Taldean komentatu saioak eta silueta marraztearen ariketak transmititu diena.



<https://programaeducativo.ayudaenaccion.org/>

Bigarren Hezkuntza (12 eta 14 urte bitartean)



B AUKERA: bi saio.

Lehenengo saioa (50 minutu):



Jarri dokumental osoa (50 minutu).

Bideoa ikusi ondoren, utzi dizkizuen sentsazioak ahotz goran komentatu ditzakezue (zer iruditu zaien Kanamori irakaslearen metodoa, zerk harritu dien, zer ez dute ulertu, zer nabarmendu nahiko luketen, etab.). Ondoren, azaldu hurrengo saiorako orri batean jarduera bat burutu beharko dutela (jarduera etxean bukatu dezakete):

- Gatazka adierazpena: ikasle bakoitzak eskolan edo etxean bizi duen gatazka bati buruz idatziko du. Nahiago badute, bestelako teknikak erabil ditzakete, adibidez, komikia, grafitia, etab. Ideia gatazkaren fase desberdinak adierazi ahal izatean datza: jatorria, prozesua eta ebazpena edo aukerako ebazpena.



Bigarren saioa (40’):

Ikasleek irakasleari egin dituzten lanak entregatuko dizkiote. Ateratzen doazen boluntarioen laguntzaren bidez, marrazkiak irakurri edo erakutsiko dira, aipatutako istorioen inguruko eztabaida egin eta gelakide guztien artean konponbideak eta ideiak eman ahal izateko, gatazken kudeaketa hobetzeko. Nahi izanez gero, jarduera hau denbora batez egiten jarraitu dezakezue eta noizean behin ariketa errepikatu eta gatazken eta aukerako konponbideen inguruko gogoeta egin.

 #círculosdedialogo

Idatzi educacion@ayudaenaccion.org helbidera eta esaiguzu nola garatu zen jarduera zuen eskolan. Zure esperientzia Ayuda en Acción elkarteko gainontzeko hezkuntza-komunitatearekin partekatuko dugu programaeducativo.ayudaenaccion.org gunean



Deskargatu etapa honen hezkuntza materialak blogean

<https://programaeducativo.ayudaenaccion.org/>





Deskripzioa

Jarduera honen helburua elkarrekiko onespeneren garrantzia eta besteek gure ezaugarri onen bidez onartzearen garrantzia lantzea da, harreman osasuntsuak ezartzeko; eta baita ere gazteen garapena eta hazkuntza sustatzea (pertsonala eta kolektiboa), erabakiak hartzerakoan parte-hartze aktiboaren bidez. Mundu honetan, non gazteria teknologia berriekin eta besteei proiektatzen dituen irudierekin estu lotuta dauden, elkarri entzuten eta elkar gehiago ezagutzen duten jarduerak pentsatu behar dira.

Helburuak

Norberaren buruarekiko maitasuna, ahalduntzea, erantzukizuna eta gaitasunen garapena sustatzea.

Jarduerak

★ Jarduera: Garrantzitsuena

Materialak: Irakasle gisa, kutxa txiki bat osatu eta apaindu, eta barrua ispilu bat jarri errazena iruditzen zaizuen itxurarekin.



Denbora: 30-40 minutu.

Eskatu ikasleei borobilean esertzea, itxita dagoen kutxa emaiezu eta zera galdetu: Kutxa honen barruan, zure ustez, zer izango litzateke zuentzat garrantzitsuena? Ikasle bakoitzak ahotz goran erantzungo du.

Denek egin ondoren, kutxa berriz zirkulatzen hasiko da –oraingo honetan irekita-barruan ispilu bat dagoela ikusteko eta garrantzitsuena beraiek direla jakiteko.

Bigarren Hezkuntza (14 eta 16 urte bitartean)



Amaitzeko, gogoetak ahotz goran egin ditzakezue, garapen positibo eta osasuntsu baterako norberaren legitimizazioaren inguru. Hurrengo galderak egin ditzakezu:

- Zure ustez, geure buruentzat zergatik izan behar gara garrantzitsuenak?
- Zergatik kostatzen zaigu geure buruak besteen aurretik jartzea?

Jarduera: Baliozkotzea, Kurt Kuenne-ren irribarre baten ahalmena

Materialak: Validation laburmetraia (iraupena: 16 min)

Bideoa interneten: Kurt Kuenne-ren *Validation*, 2007 <https://vimeo.com/9330175> (Hizkuntza: ingelesa, azpтитuluak gazteleraz, iraupena: 16 min 23").



Denbora: 50 minutu

Proiektatu bideoa gelan.

Laburmetraia ikusi ondoren, ikasleekin komentatu ikusi berri dutena eta egiezu hurrengo galdera:

- **Egunero zeuen zereginak egiteaz gain, besteengatik zerbait egingo bazenute, nolakoak izango lirateke zuen bizitzak?**

Elkarrizketa amaitu ondoren, ikasleak arbelera ateratzen animatu, eskolan, etxean edo auzoan, hurrengo astean, burutu litzaketen jarduera desberdinen zerrenda bat osatzeko (hirugarren pertsoneri laguntzeko edo haiekin kolaboratzeko xedearekin).

 #círculosdedialogo

Idatzi educacion@ayudaenaccion.org helbidera eta esaiguzu nola garatu zen jarduera zuen eskolan. Zure esperientzia Ayuda en Acción elkarteko gainontzeko hezkuntza-komunitatearekin partekatuko dugu programaeducativo.ayudaenaccion.org gunean



Deskargatu etapa honen hezkuntza materialak blogean

3. FAMILIAN LANTZEKO PROPOSAMENAK

Haur eta Lehen Hezkuntza

Deskripzioa

Haurrek etxean jarduera hauek garatu beharko dituzte gurasoen laguntzarekin, helduek seme-alaben heziketan ezinbesteko rola dutela eta balioen eraikuntzan garrantzitsuena direla kontuan hartuta.

Helburuak

Dibertsitate kulturala sendotzea eta familiarekin denbora-pasa sustatzea.

arduera Haur Hezkuntza (eta 0 urte 6 urte bitartean)

★ Jarduera: Nire familia eta ni



Materialak: DINA4 orri bat, arkatzak, gomak eta koloretako errotulagailuak

Denbora: 30-40 minutu etxean/30 minutu eskolan.



Proposatu ikasleei, etxean eta familiaren laguntzarekin, marrazki bat egitea eta bertan bere familia nolakoa den irudikatzea. Garrantzitsua da marrazkian, adibidez, senitarteko bakoitzaren izena eta jaiotze lekua idaztea eta orriaren atzealdean marraztu dezakete, eta nahi izanez gero idatzi dezakete, familiaren oroigarri polit bat. Horretarako, aitarekin, amarekin, aitona-amonarekin, osaba-izebekin, lehengusuekin, etab. hitz egin beharko dute.

Jarduera Haur Hezkuntza (eta 0 urte 6 bitartean)

Gelan, marrazki bakoitza komentatu dezakezue familia nortasun eta istorio desberdinak partekatzeko. Jarduera honek familiaren laguntza beharko du (bereziki 0-3 urteko haurrengan).

Haurrei hurrengo galderak egin ahal dizkiezu (zure lengoaia adin talde bakoitzera egokituko duzu):

- **Nola sentitu zarete marrazkia familiarekin egiten?**
- **Familia guztiak leku berean jaiotzen dira?**
- **Non gustatuko litzaizuke marrazkia egotea? Guztien artean, horiek zintzilikatze-ko leku bat aukeratu dezakezue, gelan edo eskolan ikusgai egoteko.**



Zure iritzia axola zaigu. Anima zaitez materiala baliozkotzera honako helbidean

programaeducativo.ayudaenaccion.org

Lehen Hezkuntza (6 eta 12 urte)

★ Jarduera: Gatazkak ebazteko marrazkiak

Materialak: kartoi mehea, koloreak, arkatzak..., edo familiek eta hurrek nahi duten materiala.



Denbora: 50 minutu etxean/30 minutu eskolan.

Eskatu hurrei, senitartekoekin batera, horien artean, noizbait, sortu den gatazka bat gogora ekartzea eta guztien laguntzarekin marraz dezaten. Hortik aurrera, eztabaida bat sortu dezakete zer gertatu zen eta nola konpondu zuten aztertzeko. Kartoi mehearen atzeko aldean, jarduera konstruktibo idatzi behar dituzte, gertatutakoa positiboki nola kudeatu ahal zitekeen irudikatzen duen marrazki batekin batera. Ariketa honekin, hurrek eta senitartekoei etorkizunean ematen diren gatazkak kudeatzeko formula berriak bereganatuko dituzte.

Marrazkia amaitu ondoren, etxean, guztiok ikus dezaketen leku batean zintzilikatu dezakete (gatazkaren kudeaketa positiboa irudikatzen den aldetik), intzidente berriak tratatzeko baliabideak eta gaitasunak dituztela gogoratzeko.



Zure iritzia axola zaigu. Anima zaitetz materiala baliozkotzera honako helbidean

programaeducativo.ayudaenaccion.org

Bigarren Hezkuntza (12 eta 16 urte bitartean)

Deskripzioa

Hurrengo jarduerarekin, zure harri-koskorra ekarri ahal izango duzu bake kultura ikasleen eta familien artean sustatzeko. Jarduera honetan, aditzera ematen da komunikabideetako mezuak desberdintzen jakitearen garrantzia (eduki negatiboen eta positiboen arabera desberdintzen dira), gatazkak transformatzeko mekanismoak sortzeko.

Helburuak

Pentsamendu kritiko eta gogoetatsuaren gaitasunak sustatzea, gatazkak kudeatzeko modu desberdina suspertzeko.

Jarduerak

★ Jarduera: Bake korrespontsala

Materialak: Interneterako konexioa, egunkariak eta inprimagailua gomendatzen dira. Ez baduzu halakorik, haurrei eta senitartekoei euren zonaldeko internet konexioa duten gunek erabiltzera gonbidatzen zaie, eskolan bertan, liburutegian, kultur etxean, etab.



Denbora: 30 minutu (etxeko lana)/ 30 minutu (eskolako lana).

Zenbat aldiz ikusi dugu komunikabideek eduki dramatikoak, belikoak edo desatseginak argitaratzen dituztela eta ez keinu solidarioak, gatazken kudeaketa edo bake sustapenari buruzko edukiak? Tragedietatik haratago eginez, kontatu beharko liratekeen istorio solidario anitz egon badaude. Jar dezagun adibide bat: guda bat dagoenean, komunikabideek tragedia, beldurra, heriotza eta abarri buruzko edukiak ematen dituzte bakarrik eta oso gutxitan agertzen dira ekimenak, lankidetzak, gainditze istorioak, boluntarioak eta abarri buruzko berriak.

Horri dagokionez, Siriako errefuxiatuen krisia adibide gisa jar daiteke: Bertan, Europako herrialde guztien milaka boluntario, irabazi-asmorik gabe, laguntzera joan dira: istorio horri erreparatzen badiegu, ikus genezake kolaboratzera joateko lana utzi duen jendea, edo nahiz eta hamaika oztopori aurre egin behar izan, batzuk besteekin kolaboratu diren Siriako familiak (adibide argi bat mugikorrek eskaintako laguntza izan da, Europara iristeko aukerako ibilbiderik hoberena aurkitzeko).

Bigarren Hezkuntza (12 eta 16 urte bitartean)

Proposatu ikasleei, familiaren laguntzarekin, komunikabide digital edo paperezko batean guda baten gertakari batekin edo egoera gatazkatsu batekin lotutako berri bat bilatzea, non bakea sendotzen duten elementuak eta/edo jarduera positiboak aurkitzen baitiren. Eskatu etxean eztabaida txiki bat egitea senitartekoekin berri horrek igorri dienari buruzko gogoeta egin eta partekatu ahal izateko.

Ondoren, gelan, guztion artean aztertu, ekimen desberdinak ezagutzeko eta ikasleei gai horretan kontzientziatzeko. Gero, mezu positibo bat sendotzen ez duen berri bat guztion artean bilatu dezakezue (interneten), eta konponbide eta irteera baketsuak pentsa ditzakezue, ondorengo galderak abiapuntu hartuta:

- Zein izan liteke gatazka honetarako aukerako irteera edo konponbide bat?
- Zeintzuk dira gatazka honen alderdiak?
- Zein proposatuko zenieke alderdiei gatazka hau kudeatzeko?
- Zerbait egin ahalko genuke gatazka hau ebazteko?

Zure ustez zer egin genezake?

Azken galderatik aurrera, honako gogoeta egin liteke: gatazketan denok geure erantzukizuna dugu, eta mundu hobea eraikitzeko mobilizatu behar gara.



Zure iritzia axola zaigu. Anima zaitetz materiala baliozkotzera honako helbidean

programaeducativo.ayudaenaccion.org

4.

SAKONTZEKO BALIABIDEAK

Atal honetan, gomendatutako proposamenak erakusgai jarri ditugu, irasleek, gelan, gatazken kudeaketa positiboari eta bake kulturaren sustapenari buruzko gogoeta sakona egin ahal izateko; bibliografia erreferentzia, baliabide materialak eta ikus-entzunezko materialen bidez.

Irakurgaiak:

- “*Sin embargo se quieren*”, Frédéric Kessler.

Erreferentzia: Tramuntana argitaletxea, 2012. Hizkuntza: gaztelania. Web:

<http://www.tramuntanaeditorial.com/es/catalogo/y-sin-embargo-se-quieren>

- “*Vacío*”, Anna Llenas.

Erreferentzia: Barbara Fiore argitaletxea, 2015. Hizkuntza: gaztelania eta katalana.

Web: www.annallenas.com/ilustracion-editorial/vacio.html#.V5jNqTX3M8s

- “*Emocionario, palabras aladas*”.

Erreferentzia: www.palabrasaladas.com/emocionario.html

Mahai-jolasak:

- *Ikonikus*, Manu Palau.

Erreferentzia: Casa de juegos Brain Picnic, 2013. Gaztelania.

Web: <http://www.brainpicnic.es/>.

Ikus-entzunezko baliabideak:

- Bideoa: “*Cadena de favores infinita*” (iraupena: 6 min).

Erreferentzia: <https://www.youtube.com/watch?v=8Gosg1ybxTU>

- Bideoa: “*Una mujer cambió el letrero de un invidente, lo que ocurre después, es asombroso.*” *Cambia tus palabras, cambia tu mundo* (iraupena: minutu 1 eta 47 segundo).

Erreferentzia: <https://www.youtube.com/watch?v=2Yge6vmswRI>

Gomendatutako web guneak:

- Escuela de Paz

Erreferentzia: www.escueladepaz.es/

Zure iritzia axola zaigu. Anima zaitetz materiala baliozkotzera honako helbidean <http://programaeducativo.ayudaenaccion.org/>



 #círculosdedialogo



Idatzi educacion@ayudaenaccion.org helbidera eta esaiguzu nola garatu zen jarduera zuen eskolan. Zure esperientzia Ayuda en Acción elkarteko gainontzeko hezkuntza-komunitatearekin partekatuko dugu programaeducativo.ayudaenaccion.org gunean

Deskargatu etapa honen hezkuntza materialak blogean



<http://ayudaenaccion.org/ahoratoca>



Ayuda en Acción pobrezia, gizarte baztertea eta desberdintasunen aurka borrokatzen den garapenaren aldeko lankidetzako nazioarteko erakunde bat da. Duintasuna eta solidaritatea sustatzen dugu, mundu orekatuagoa eraikitzeko.

35 urtean zehar, gure lana bereizi duen faktoretako bat epe luzearako esku-hartze ereduak izan da. Latin Amerika, Asia eta Afrikako 19 herrialdetan lan egiten dugu, baita Espainian ere, non pobrezia desagerraraztearen alde egiten duten egitura aldaketak bideratzen ditugun, osoko garapeneko eta sentsibilizazio jardueretako proiektu auto iraunkorren bidez.

Programak sustatzen ditugu gehien gutxietsita dauden erkidegoetan, non giza eskubideak, genero berdintasuna, lotura solidarioen sustapena eta haurrenganako arreta berezia gure laneko ikuspegiak eta zeharkako gaiak diren.

Garatzen ditugun programa guztietan, hezkuntzak zeregin nagusia du, oso garrantzitsua delako gizarte aldaketako prozesuetan eta pertsona zintzoak eta solidarioak sortzeko prozesuan.



Jarraitu Oraingoan programaren nobedade guztiak... bertan:



programaeducativo.ayudaenaccion.org

